

opusdei.org

Ezaugarriak

“Opus Deiren jarduera nagusia, bere kideei eta nahi duenari munduaren erdian kristau zintzo bezala bizitzeko baliabide espiritualak eskaintzea da” esan ohi zuen fundatzaileak.

2004 Mar 2

Heziera hau hartuz, bakoitzak bere aldetik egingo du apostolutza lana, bere inguruan Jesukristoren testigu izanez. “Maitasunak, zuzentasuna, solidaritatea, familia eta gizartearenganako erantzukizuna,

pobretasuna, alaitasuna,
garbitasuna, adiskidetasuna...
bizitzea eskatzen du”. Opus Deiren
apostolutzarik garrantzitsuena kide
bakoitzaren lan pertsonal hori da.
Lekukotasun apostolutza da eta
eguneroko lanean eta pertsona
bakoitzaren bizitzaren
gorabeheretan laguntza zehatz eta
eraginkorra eskaintzen du:
apostolutza pertsonala, beraz,
jarraibidearen eta hitzaren bidez.

Garrantzi berezia du Opus Deiko
kideentzat gazteen alde, ikasle nahiz
langile, egiten den apostolutzak. Lan
horretara, zuzentzen du bakoitzak,
ahal duen neurrian, bere denbora
eta ahaleginen zati eder bat. Gazteei
ematen zaien heziketa gogo bizitza
eta giza bertuteak haztean
oinarritzen da, lanean eta
zerbitzuan, eta bakoitzaren
nortasuna garatzea bilatzen du,
“taldeko espiritu” hertsia eta
bartzertzailea saihestuz .

Prelatuzari eskatu zaizkio edo berak
bultzatu ditu eliz erakunde batzuk,
hala nola Gurutze Santuaren
Unibertsitate Pontifikala Erroman.
Baina horiek alde batera utzita, Opus
Deiko kide eta laguntzaileek –beste
pertsona askorekin batera,
katolikoak izan edo ez–, hezkuntza,
asistentzi eta kultura lanak aurrera
eramaten dituzte, zerbitzua eta
heziera helburutzat dituztenak:
ikastetxeak, ospitaleak,
unibertsitateak, lanbide heziketako
zentroak, etab. Opus Deiko kideek,
beren nazio edo beren inguruko
beharrei erantzuten dien ekitaldiak
sortzen dituzte, eta gero
erantzukizun beteaz mantentzen,
baita ekonomiaren aldetik ere.

Prelatutza, gizarte intereseko ekimen
horietan kristau espiritua suspertzen
jarduten da, betiere kontzientzien
askatasuna errespetatuz eta arraza,
erlijio edo biziera mailari dagokionez
diskriminaziorik egin gabe.

Prelatutza, beraz, ez da irabazi asmoko ekitaldiez, enpresa komertzialez edo politikoez, etab. arduratzen.

Opus Dei Prelatutzak mota desberdinetako akordioak ezar ditzake:

a) Lan korporatiboetan, Opus Deik zentroan egiten diren ekitaldien kristau orientazioa bermatzen du.

b) Beste kasutan, Opus Deik, neurri batean edo bestean, laguntza espiritual eskaintzen du, baina prelatutzak, ofizialki, ez du ekimen horietan egiten den hezkuntza lanaren bermea bere gain hartzen. Laguntza espiritual honek forma desberdinak izan ditzake: apaiz laguntza, erlijio eskolen ardura, etab.

Honen ondorioz, prelatutzarekin egiten diren akordioak ez dute batere aldatzen erakundearen izaera zibila, hots, gestioa eta zuzendaritzaren

erantzukizuna sustatzaileei dagokie
beti, pertsonak nahiz entitate zibilak
direla, eta ez Opus Dei Prelatutzari.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/ezaugarriak/](https://opusdei.org/eu-es/article/ezaugarriak/) (2025 Mar 28)